

TREBAKUNTZA 2019-10: ERDARAKADAK (V)

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Amorotorako bidea **moztu** egin behar izan dute.*
2. * *Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **beranduago**.*
3. * *UEMAko **herri desberdinetan** jarri da abian etorri berriak herritartzeko egitasmoa.*
4. * *Une honetan ezin da telefonoan jarri, alkatearekin **bilduta** baitago.*
5. * *Hilaren 20an egingo den emanaldira etortzeko gonbidapena **luzatzen** dizut.*
6. * *Laster elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen naiz.*
7. * *Osasunak galdu egin zuen, oso ondo jolastu arren.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko “cortar” hori zuzenean itzultzen dugu sarritan, baina euskarak badauka bere-berea den forma hori esateko.

Ad. Amorotorako bidea **itxi** egin behar izan dute.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

2. “Beranduago” erabiltzeak esan nahi du **aurreneko txirrindularia ere berandu** iritsi dela, eta pentsatzekoa da lehenengoa ez dela berandu iritsi.

Ad. Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **geroago**.

Nolanahi ere, gerta liteke testuinguru jakin batzuetan “**beranduago**” **ondo** egotea.

Ad. Bostetan geunden geratuta. Ni bostak eta hogeian iritsi nintzen (berandu), eta Aitor hamar minutu **beranduago**.

3. Gaztelaniazko “**diferentes**” ez da beti “**ezberdinak**” izaten euskaraz.

Diferentes pueblos (=varios pueblos) = herri batzuk, zenbait herri

Pueblos diferentes (=de características diferentes) = herri desberdinak/ezberdinak (hau da, ez dira berdinak, ez dituzte ezaugarri berak).

Ad. UEMAKo **zenbait herritan / herri batzuetan** abian jarri da etorri berriak herritartzeko egitasmoa.

4. Euskaraz, “bilduta dago” hori nahiko esamolde berria da. Orain arte, “bilera batean dago” edo “norbaitekin dago” erabili izan da. Gainera, pertsonak elkartu egiten dira, ez bildu.

Ad. Une honetan ezin da telefonoan jarri, **alkatearekin baitago**.

5. “**Luzatu**”, **berez**, **tamainari lotuta** erabiltzen da euskaraz, gauza edo pertsona bat luzatu (=luzeagoa egin), eta ez eman edo egin esateko.

Ad. Hilaren 20an egingo den emanaldira **gonbidatzen zaitut**.

6. Gaztelaniazko "me despido" espresioaren parekoa da "agurtzen naiz", euskaldun zahar batek sekula esango ez lukeena.

Ad. Laster elkar ikusiko dugulakoan, **agur/agurtzen zaitut**.

7. Kirola denean, edo lehia adierazi nahi denean, euskaraz "jokatu" erabiltzen dugu (pilotan, futboleant, musean...), eta “jolastu” umeez egiten dutenari deitzen diogu, adibidez, parkean jolastu.

Ad. Osasunak galdu egin zuen, oso ondo **jokatu** arren.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699